

Marcial Olaizola Iruretagoiena

*Zarautz,
Gipuzkoa
(1917-2005)*

Aurkibidea

Biografia



Añai baserrian jaioa, Getariarako bidean. Batez ere gerrako pasadizoak kontatu ditu.

Zintak

ZAR-032

- **Proiektua:** Zarautz Hizketan - Zarauzko euskara eta ahozko ondarea
- **Elkarrizketatzailea(k):** Maiz, Belen - Muniozguren, Fernando
- **Data:** 2005-05-19
- **Iraupena:** 55 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane

Pasarteak

1. Pistola aurkitu zutenekoa

- **Erref:** ZAR-032/006
- **Iraupena:** 0:00:54. **Hasi:** 00:08:56. **Bukatu:** 00:09:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

<p>Ganaduarekin iturrira joan ziren batean anaiak pistola aurkitu zuen. Denbora gutxian etorri zitzaizkien pistolaren bila.</p>

Transkripzioa

- Errepublika eta hori nola gogoratzen dezue? Zuek nazionalistak ziñaten hemen Zarautzen.
- Bai.
- Nola gogoratzen dezu garai hori?
- Garai hori? Ganauakin iturrira jun ta nere anaiak pistola bilatu zun, holako pistola, iturriyan. Galtzak askatzea jun zan nunbait, pistola laga aldamenian... [Gu aitai esatea]: "Aita, beitu zer bilatu deten". "Jesus Maria eta Jose! Jesus! Bota zazue hoi sasira!" ta "Sasira? Ta geo bila etortzen badira?". Ordubete ez zan izango, gutxiyo, buelta in ta berriz pistola bila. Zuzenian gure etxea: "Zuek hartu dezue pistola, e! Zuek". Entregatu in ber izan gendun pistola.
- Zein zan?
- Oo... Nik ez dakit zein izango zan!
- Militarren bat eo...?
- Bai.

2. Itzarkundea batailoiko kontuak

- **Erref:** ZAR-032/009
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 00:11:23. **Bukatu:** 00:14:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

<p>Reketeek baserrietara joan eta jendea hiltzen zuten, eta beraiek mendira joaten ziren lotara. Gerrara bi anaia joan ziren. Kamioira joan, fardela eta arma jaso eta Mutriku aldera joan ziren. "Itzarkundia" batailoian ibili zen; Lizaso zen kapitana. Berak "enlaze" lana egiten zuen.</p>

3. Frontean bizitako baldintzak

- **Erref:** ZAR-032/011
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:14:58. **Bukatu:** 00:16:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Zuzenean frontera joan ziren Arrasate aldera. Zuhaitzen azpian lo egiten zuten mendian.

4. Zaragozako behartutako lanak; bertakoen egoera

- **Erref:** ZAR-032/013
- **Iraupena:** 0:02:42. **Hasi:** 00:17:54. **Bukatu:** 00:20:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Zaragozan zazpiak aldean jaiki eta kafea gosaltzen zuten. Egun guztian lan egin eta bazkaltzeko eta afaltzeko sardina-zaharra ematen zieten. Kamioietan azukre-zakuak kargatzen lan egiten zuten.

5. Terueletik Bilboko kartzelara

- **Erref:** ZAR-032/014
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 00:20:36. **Bukatu:** 00:22:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Zaragozatik Teruelera joan zen eta Terueletik kartzelara eraman zuten. Han deklaratu egin zuen eta Bilboko kartzelan urtebete egin zuen horren ondoren. Lau egun egin zituen Terueletik Bilbora.

6. Tailista-lanak

- **Erref:** ZAR-032/017
- **Iraupena:** 0:00:47. **Hasi:** 00:28:33. **Bukatu:** 00:29:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Urtebete egin zuen tailista moduan. Zortzi orduz lan egiten zuen eta hiru pezeta kobratzen zituen astean. Oinez edo bizikletaz joaten zen lanera.

7. Lasterketak; bizikletarekin gertatutako pasadizoa

- **Erref:** ZAR-032/021
- **Iraupena:** 0:02:37. **Hasi:** 00:34:35. **Bukatu:** 00:37:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

<p>Mutikotatik ibili izan da korrika. Nortzuk ibiltzen ziren aurreneko postuetan lasterketetan. Behin Herniora bizikletaz joan zenean gertatu zitzaiena.</p>

8. Apustuen gorabeherak

- **Erref:** ZAR-032/023
- **Iraupena:** 0:00:54. **Hasi:** 00:39:07. **Bukatu:** 00:40:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

Ez zen jakiten bakoitzak zer jokatzen zuen apustuetan. Trabesak ere egiten ziren eta baita tongoak ere.

9. Etxez etxe telak saltzen

- **Erref:** ZAR-032/024
- **Iraupena:** 0:03:16. **Hasi:** 00:40:01. **Bukatu:** 00:43:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

Logroñotik etorri zenean bere kontu hasi zen lanean, eta ezkondu ondoren telak saltzen hasi zen baserriz baserri. Horretarako ikasketei ekin zien etxean. Oinez joaten zen batera eta bestera eta batzuetan baserrian bertan lo egiten zuen. Materiala Bergaran edo Donostian erosten zuen.

10. Telaren prezioa

- **Erref:** ZAR-032/027
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:46:12. **Bukatu:** 00:47:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

Harreman ona zuen baserritarrekin. Konpetentzia ere bazuen. Tela 18 pezetan erosi eta 29an saltzen zuen.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-04-16

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com